



## Lectio divina

### 1. IRAKURGAIA: Zer dio testuak?

### 2. GOGOETA: Zer dio niretzat/guretzat testuak?

- ✓ Dirudienez, fariseua ez da gauza Jainkoaren errukia ulertzeko. Bere burua ez du hain bekatari ikusten eta, horregatik, ez du halako esker ona agertu beharrik ikusten. Nola bizi dut neure bekatuaren errealitatea? Bekatari ikusten dut neure burua ala besteak baino hobea naizelakoan nago? Maiz epaitzen al ditut gainerako pertsonak, baita Jainkoa bera ere?
- ✓ Bekatari dela aitortzen du Ebanjelioko emakumeak, damutua dago barne-barneraino eta esker ona agertzen dio Jesusi. Jainkoa hain urrikaltu dela ikusteak eraldatu egin dio bizitza. Kosta egiten al zaigu geure bekatuez damutzea? Esker oneko al naiz neure bizitzan? Eta esker onezko jarrera hori ematen al dut aditzera zeinu eta egintza zehatzetan?
- ✓ Jainkoaren barkamenaren eta errukiaren esperientzia izanez bizi behar genuke geure bekatari izatea. Bekatari naizela oharturik, irekia al dut bihotza Jainkoaren errukia hartzeko? Izan al dut esperentziarik Jainkoaren errukiaz? Zerk oztopatzen dit Jainkoaren errukia sumatuz bizitza? Jainkoak niretzat duen errukia bera al dut nik lagun urkoarentzat?

### 3. OTOITZA: Testu honetan oinarriturik, zer esango genioke Jainkoari?

Jauna, lagun iezadazu neure bihotzeko atea irekia izaten Itxaropenarentzat. Emadazu apaltasuna, egiaz nolakoa naizen aitortzeko, Zuri barkamena eskatzeko eta zure errukiagatik esker oneko izanez erantzuteko.

### 4. KONPROMISOA: Zer sortzen du nigan/gugan testu honek?

Geure bekatari-izatea Jainkoaren errukia begien aurrean dugula bizitzera animatzen gaitu emakume bekatariaren testigantzak. Gu geu garena aitortzera konprometitzen gaitu, eta Jainkoak guretzat duen errukia sakonago sumatzera; horrela, esker onezko espiritu sakona izanez, lagun hurkoarentzat gu ere urrikaltu izan gaitzen. Zer egin dezaket Jainkoaren aurpegi urrikaltsua sakonago eta hobekiago ezagutzeko? Pertsona asko dugu inguruan gizarteak baztertzen dituenak eta Jainkoak maitasunez begiratzen gonbidatzen gaituenak; zer egin dezaket pertsona horiekiko jarrera baikorra nire inguruan sustatzeko?

JAINKOA  
JARTZEN  
DUT NIRE  
ITXAROPENA

Hitzarekin  
topatuz

5. fitxa, lk 7, 36-50

BARKATUAK  
DITUZU BEKATUAK  
JAINKOAREN ERRUKIA



Donostiako  
Gotzaindegia  
Obispado de  
San Sebastián



DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA  
DIOCESI DE SAN SEBASTIÁN

URTEURRISMA  
ANNIVERSARIO



## Lk 7, 36-50

<sup>36</sup> Behin batean, fariseu batek bazkaltzera gonbidatu zuen Jesus. Joan zen, bada, Jesus fariseuaren etxera eta mahaiari jarri zen. <sup>37</sup> Hartan, emakume bat, herrian bekatari bezala ezaguna, Jesus fariseuaren etxean bazkaltzen zela jakirik, bertara joan zen, harzurizko ontzi bat ukendu zeramala. <sup>38</sup> Jesusen atzean oinen ondoan jarri zen negarrez, eta oinak malkoz bustitzen hasi zitzaion; gero, ileaz xukatu eta musukatuz, ukenduz igurzten zizkion. <sup>39</sup> Hau ikustean, gonbidatu zuen fariseuak bere baitan zioen: «Benetan profeta balitz, jakingo luke zer-nolakoa den ukitzen ari zaion emakumea, bekataria alegia».

<sup>40</sup> Jesusek esan zion: «Simon, badut zer bait zuri esateko». Hark erantzun: «Esadazu, Maisu». <sup>41</sup> «Diru-mailegari batek bi zordun zituen: bata bostehun denario zor zizkion eta besteak berrogeita hamar. <sup>42</sup> Zerez ordaindurik ez zutelarik, barkatu egin zien biei. Bietako zeinek izango ote du maiteen?» <sup>43</sup> Simonek erantzun zion: «Gehien barkatu zionak, nik uste». Jesusek esan zion: «Zuzen diozu». <sup>44</sup> Eta, emakumeagana bihurturik, Simoni esan zion: «Ikusten al duzu emakume hau? Zure etxean sartu naizenean, ez didazu oinak garbitzeko urik eskaini; honek, berriz, malkoz busti dizkit oinak eta bere ileaz xukatu. <sup>45</sup> Zuk ez nauzu musu emanez agurtu; hau, berriz, sartu denetik ez da gelditu nire oinei musuka. <sup>46</sup> Zuk ez didazu burua olioz igurtzi; honek, berriz, oinak ukenduz igurtzi dizkit. <sup>47</sup> Beraz, hau diotsut: Bekatu asko ditu, baina hainbesteko maitasuna ageri badu, Jainkoak barkatu dizkion seinalea da; gutxi barkatzen zaionak maitasun gutxi agertzen du.

<sup>48</sup> Eta emakumeari esan zion: «Barkatuak dituzu zeure bekatuak».

<sup>49</sup> Beste bazkaltziarrak beren artean hasi ziren esaten: «Nor ote dugu bekatuak barkatu ere egiten dituen hau?»

<sup>50</sup> Baina Jesusek esan zion emakumeari: «Zeure sinesmenak salbatu zaitu; zoaz bakean».

susek esandako parabolari bi zordunen historia, biei barkatu baitzien zorra diru-mailegariak, nahiz batek baino gehiago zor zion besteak. tx.). Ironiaz, Simon fariseuak bere burua epaitu zuen. Fariseua lasai zegoen, bekatu gutxi zuelakoan baitzegoen. Ez zen gauza Jainkoarekin errukia ulertzeko.

✓ Ebanjelioak ez du emakumearen izena aipatzen; «emakume bat, herrian bekatari bezala ezaguna» zela besterik ez du esaten. Emakume bat gonbidatu batengana hurbiltzea ez zen ohikoa. Morroiek edota gonbidatzaileak berak igurtzi ohi zituzten gonbidatuak. Negar egiteak aditzera ematen zuen emakume hark zer sentitzen zuen bere baitan. Ziur aski, bere bekatuak gogoratzen ari zitzaizkion. Jesusen pinetan hustu egin zuen bere barrua, malkoz busti zizkion oinak, ile-adatsez txukatu eta lurrin gozoz igurtzi. Hori eginez, bere esker on sakona erakutsi nahi zion. Ez zen horretan ari norbaitek agindu ziolako, baizik eta bihotzean zuen eragin ziolako: esker ona agertu nahiak. Gonbidatzaileak, Simonek, ohitura betez egin behar izan zuena baino gehiago egin zuen emakume hark. Urez betetako konketa eta eskuzapia, ohi bezala, erabili ordez, bere malkoak eta bere ile-adatsa erabili zituen Jesusi oinak garbitzeko eta txukatzeke.

✓ Bekatari zela aitortu zuelako barkatu zion Jesusek emakume honi. Emakume hura, Jainkoaren aurrean ez zen beste bat. Ebanjelariak ez digu esaten nola zuen izena, baina Jesusentzat norbait zen. Sinestunaren eredu gertatu: «Zeure sinesmenak salbatu zaitu; zoaz bakean». Jainkoak barkamena ez du ematen maitasunaren ordain; besterik gabe ematen du, ordainik eskatu gabe. Hala ulertu zuen emakume bekataria. Parabolak dioena aintzat hartu ezker, esan beharra dugu emakumeak Jesusi erakusten dion maitasunak agerian jartzen du bekatu asko barkatu diola Jesusek. Bekatuen barkamena hartzei esker onezko maitasuna dagokio. Jainkoaren errukiaren atea irekitzen du esker onezko maitasunak, eta itzaropenerako bideari ekiten dio.

✓ Emakume hark zeukana emanez, bere burua emanez, adoratu zuen Jesus. Gaingitu egin zituen bere garaiko gizarteak ezarriak zituen lege-heziak. Orduan, bere bizitza berriro hasi ahal izan zuen, barkatuak baitzituen zorrak. Testuak horrelakorik esaten ez badu ere, Jesusi eta harekin herri zebiltzan ikasleei lagun egiten zien emakume-taldean sartuko zen, ziur aski, emakume hau (Lk 8, 1-3).



## Textua ulertzeko

- ✓ Lukasen kontraera honetan, Jesusen oinak igurzteak barkamena eta bihotz-berritzea adierazten du. Jesusek bekatariekiko zuen errukia azpimarratzen du ebanjelariak. Jainkoaren errukia uste ona jartzeak bidea zabaltzen digu eta aske egiten gaitu.
- ✓ Fariseu hark ez zuen egoki bete gonbidatzaile-papera. Jesusez interesatua zegoen; horregatik gonbidatu zuen bere etxera. Maisu zela aitortu zion. Baina zalantza zuen Jesus profeta zenik: «benetan profeta balitz», zioen berekiko. Jesus epaitzen ari zen. Egia da zuzen epaitu zuela Je-